

Laguntzailearekiko garraio egokituaren zerbitzua.

Prestazio mota: Bermatu gabekoa.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Garraio egokitu eta/edo laguntza pertsonalekikoa eskaintzen duen zerbitzua, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasunari aurrea hartzeko zerbitzu eta programetara joatea errazteko.

Onuradunak: 65 urtetik gorako pertsonak, beren egoera fisikoa dela-eta beste garraio biderik erabiltzerik ez dutenak.

Jasotzeko baldintzak:

- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziak aitortua izatea garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasun larriak dituela.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziaren egokitasun txostena, beste garraio bide batzuk erabiltzeko aukeraren edo ezintasunaren arabera.

Zerbitzua irekita: Urteko lan egun guztiak.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Gutxieneko maiztasuna: hamabostean behin.
- Gehienerako maiztasuna: egunean behin.

Ebazteko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Bai.

Jarduteko eremua:

Nafarroako Foru Komunitatea.

